



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urriaren 18a

25. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, trafiko arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeko baliatu den politika orokorrari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, urriaren 19an Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu tolerantzia eta indarkeriarik eza sustatzen jarraitzeko hezkuntzaren, zientziaren, kulturaren eta komunikazioaren alorreko programa, jarduketa edo ekimenen babesaren bitartez. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitu Rojavan hil edo zaurituekiko, bai eta haien familiekiko ere, beren herrien aurkako bonbardaketa indiskriminatuak pairatu baitituzte. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu Ekuadorko herriak egun hauetan bizi izan duen salbuespen egoera. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, etxebizitzarik gabeko familiak babeste aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin egin beharreko lankidetzeta-hitzarmenari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresaburuen Zirkuluak aurkeztutako konklusioei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, programa-akordioaren helburuak betetzeko behar diren finantzaketa-bermeei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, AEBetan muga-zergak igotzearen eta Erresuma Batuan Brexit gogorra egitearen ondorio ekonomikoak arintzeko neurriei buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (10. or.).

- Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentua eskualdeak sortze aldera egiten ari denari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (10. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Inbertsio finantzarioki jasangarrien Planaren baitan finantzatutako inbertsioak zertan diren. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (11. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak zer plan duen Nafarroan langile autonomoen kopuruaren jai-tsiera leuntzeko. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, erregio mailako lehiakortasuna galtzeari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Erripagaineko Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak finantzatzeko Foru Dekretu berria onesteari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (13. or.).
- Galdera, AP-15aren doakotasunari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, kultur ohiturei eta praktikei buruzko 2018-2019 Inkestari buruzkoa. Jabi Arakama Urutiaga jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Erriberako zenbait herritan zergatik ez den helduentzako euskarazko eskolarik eskaintzen. Jabi Arakama Urutiaga jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, gizarte zerbitzuetan politika publikoetako beste esparru batzuekin integratutako lana bultzatzeko lan-ildoei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Ospitaleko Espetxe-zaintzako Unitate bat irekitzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Mendigorria-Garesko osasun barrutia berrantolatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Eslabako Santa Criz aztarnategiak ukitutako finkak desjabetzeko prozedurari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, “Tracasa Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” 1550003 17830 2272 932100 (E) aurrekontu-partidari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Siemens Gamesaren produkzioaren balizko deslokalizazioari buruzkoa. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea (19. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Hirugarren araua aldatzea, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. eta 35. artikuluen garapenerako arauetakoa (20. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, trafiko arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeko baliatzen den politika orokorrari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko interpelazioa, trafiko arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeko baliatzen den politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendu indardunean ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: trafiko arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeko baliatzen den politika orokorrari buruzko interpelazioa, Espainiako Erresumako gobernuak lehendakariak konpromiso hori hartu baitzuen Nafarroako lehendakariarekin 2018ko urrian.

Iruñean, 2019ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Adierazpen instituzionala, urriaren 19an Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako adierazpen instituzional hau onesten du, urriaren 19an Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta:

1. Egun horren karietara Nafarroan egiten diren ekitaldiak aldeztu ditu, eta herritarrei dei egiten die horietan parte har dezaten; bereziki, Bularreko Minbiziaren aurkako VIII. Lasterketa Solidarioan, zeina urriaren 27an egiten baita.

2. Ekitaldi instituzional bat egitea Nafarroako Parlamentuan heldu den urriaren 18an, 12:00etan, eta bertara gonbidatzea Nafarroako Gobernua, foru parlamentariak, Saray elkarteak, herritarrak oro har eta hedabideak ere.

3. Urriaren 18 eta 19an Nafarroako Parlamentuaren egoitzako fatxadan olan bat jartzea arrosa koloreko xingolarekin, hori baita bularreko minbiziaren aurkako borrokaren ikurra, eta hilaren 19an fatxada arrosa kolorez argiztatzea”. (10-19/DEC-00064).

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere erabaki irmoa berresten du:

1. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren esparruan aldarrikatutako eskubide eta printzipioak aldeztu eta babesteko, eta horien erabateko baliaagarritasuna lortzeko neurri zehatz, eskuragarri eta mugatuak hartzeko.

2. Konbentzioaren printzipio zuzendariak errespetatzeko: ez diskriminatzearen printzipioa, haurren interes gorena lortzea izatea haurrekin zerikusia duten ekintza guztien xede nagusia; haurren berezko bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea; haurren eskubidea beren iritzia askatasunez emateko beraiekin zerikusia duten

gai guztietan eta iritzi horri merezi duen balioa ematea.

3. Foru eskumenei dagokienez ahal diren ahalgin guztiak egiteko, haien edukia betetzen dela ziurtatze aldera, haur-politikak taxutu eta garatzea bultzatuz, gizarte bidezkoago eta berdintasunezkoago baterantz hurbildu ahal izateko.

4. 2016ko maiatzaren 2an hartutako konpromisoak garatzeko, egun horretan sinatu baitzen Haurren aldeko Nafarroako Aliantza.

5. Haurren aldeko ekintzak eta emaitzak areagotzea tokiko, nazioko eta nazioarteko mailan. Haurrekiko zuzeneko konpromisoa aldarrikatzea mundu osoan: haur bakoitzarekin, eskubide bakoitzarekin, eta xede hori lortzeko ahalegin bateratu bat hedatzea”. (10-19/DEC-00065).

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu tolerantzia eta indarkeriarik eza sustatzen jarraitzeko hezkuntzaren, zientziaren, kulturaren eta komunikazioaren alorreko programa, jarduketa edo ekimenen babesaren bitartez.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere egiten du UNESCOren Tolerantziaren gaineko Printzipioen Adierazpena, eta ondokoa adierazten du:

1. Tolerantzia gure munduko kultur aniztasun aberatsaren errespetua, onarpena, eta estimua da, bai eta gure adierazpide eta izateko modu gizatiarra ere. Tolerantzia sustatzeko moduak dira ezagutza, jarrera irekia, komunikazioa eta pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna. Tolerantzia da desberdintasunaren baitako harmonia. Ez da betebeharrak morala soilik, betekizun politiko eta juridikoa ere bada. Tolerantziak, bakea ahalbidetzen duen bertuteak, gerraren kultura bakearen kulturarekin ordeztu laguntzen du.

2. Tolerantzia ez da amore ematea, etorkortasuna edo barkaberatasuna. Lehenik eta behin, tolerantzia da giza eskubide unibertsalen eta beste oinarritzko askatasunen errekonozimenduzko jarrera aktiboa. Ezin da inola ere erabili oinarritzko balio horien urraketa justifikatzeko. Tolerantzia norbanakoek, taldeek eta estatuak gauzatu beharrekoa da.

3. Tolerantzia da giza eskubideen, aniztasunaren (kultur aniztasuna barne), demokrazia eta zuzenbide estatuaren oinarrian dagoen erantzukizuna. Dogmatismoaren eta absolutismoaren errefusa dakar eta giza eskubideei buruzko nazioarteko testuetan ezarritako arauak berresten ditu.

4. Giza eskubideen errespetuarekin bat, tolerantziak jardutea ez da injustizia sozialak

onartzea ezta norberaren uste sendoei uko egitea edo moldatzea. Halaber, esan nahi du inork ezin dizkiela inposatu bere iritzia besteiei. Esan nahi du onartzea gizakiok, zeinon ezaugarri naturala baita desberdinak izatea itxurari, egoerari, adierazteko moduari, jokamoldeari eta balioei dagokienez, eskubidea dugula bakean bizitzeko eta garen modukoak izateko. Halaber, esan nahi du inork ezin dizkiela inposatu bere iritzia besteiei.

5. Tolerantziak zuzentasuna eta inpartzialtasuna eskatzen du legeriari, legearen aplikazioari eta botere judizial eta administratiboa egikaritzeari dagokienez. Halaber, eskatzen du pertsona orok aukera ekonomiko eta sozialak izatea inolako diskriminaziorik gabe. Bazterketak eta marjinazioak frustraziora, etsaitasunera eta fanatismora eraman dezakete.

6. Gizarte tolerantetago bat ezartzeko xedez, estatuak giza eskubideen alorrean dauden nazioarteko itunak berretsi behar dituzte, eta, beharrezkoa denean, legeria berria egin, gizarteko talde eta norbanako guztiei tratu- eta aukera-berdintasuna bermatuko diena.

7. Harmonia gailentze aldera, ezinbestekoa da pertsonak, erkidegoak eta nazioek giza familien izaera kulturantzuna onartzea eta errespetatzea. Tolerantziarik gabe ezin da bakerik izan, eta bakerik gabe ezin da garapenik eta demokraziarik izan.

8. Intolerantziak izan dezake talde ahulen marjinazioaren eta parte-hartze sozial eta politikotik baztertearen aurpegia, bai eta talde horien aurkako indarkeriaren eta diskriminazioarena ere. Arrazari eta arraza-aurreiritziei buruzko Adierazpenaren 1.2. artikuluan berresten denez, "norbanako eta talde guztiek dute desberdin izateko eskubidea".

9. Mundu modernoan, tolerantzia inoiz baino ezinbestekoagoa da. Gure garai honen ezaugarri dira ekonomiaren mundializazioa eta mugikortasunaren, komunikazioaren, integrazioaren eta elkar-mendekotasunaren azkartzea; migrazioaren eta populazioen joan-etorrien hedatzea; urbanizazioa eta eredu sozialen eraldatzea. Munduaren ezaugarri dira aniztasuna eta intolerantziaren eta gatazken areagotzea, eta hori balizko mehatxua da eskualde guztientzat. Mehatxu hori unibertatsala da, ez da mugatzen herrialde jakin batera.

10. Tolerantzia beharrezkoa da norbanakoen-tzat, bai eta familia eta komunitatearen barruan ere. Tolerantzia sustatu eta jarrera irekia, elkarri entzutea eta elkartasuna erakutsi behar da eskolatan, unibertsitateetan, eskolaz kanpoko hezkuntzan, bai eta etxean eta lantokian ere. Hedabideek eginkizun eraikitzailea izan dezakete, elkarriketa

eta eztabaida aske eta irekiak ahalbidetuz, tolerantziaren balioak zabalduz eta talde eta ideologia intoleranteek gora egitearen aurrean axolagabekeriak dakarren arriskua azpimarratuz.

11. Unescoren Arrazari eta arraza-aurreiritziei buruko Adierazpenean esaten den moduan, neurriak hartu behar dira beharrezkoa den tokietan berdintasuna bermatzeko, duintasunari eta pertsonen eta giza taldeen eskubideei dagokienez. Horri lotuta, arreta berezia jarri behar da egoera zaurgarrian daude talde ahuletan, horiek indarreko lege eta neurri sozialen bidez babesteko, bereziki etxebizitza, enplegu eta osasun alorretan. Halaber, beharrezkoa da beren kultura eta balioen egiazkotasuna errespetatzea eta haien gizarte-eta lanbide-sustapena eta integrazioa ahalbidetzea, bereziki hezkuntzaren bidez.

12. Hezkuntza da intolerantziari aurrea hartzeko tresnarik eraginkorrena. Tolerantziarako hezkuntzaren lehenengo urratsa da pertsonari erakustea zeintzuk diren partekatzen dituzten eskubide eta askatasunak, haiek errespetatu daitezen, bai eta besteen eskubide eta askatasunak babesteko borondatea sustatzea ere.

13. Tolerantziarako hezkuntza premiazko bete-beharra da; hori dela eta, beharrezkoa da tolerantziaren hezkuntzarako metodo sistematiko eta arrazionalak sustatzea, intolerantziaren arrazoi kultural, sozial, ekonomiko, politiko eta erlijiosoak aztertuko dituztenak, horiek baitira indarkeriaren eta bazterkeriaren jatorria. Hezkuntza politikak eta programak lagungarriak izan behar dute norbanakoen arteko zein etnia-, kultur-, gizarte-erlijio- eta hizkuntza-taldeen eta nazioen arteko adostasuna, elkartasuna eta tolerantzia garatzeko.

14. Tolerantziarako hezkuntzaren xedeak izan behar du beldurrera eta besteak baztertera eramateen gaituzten eraginei aurka egitea, eta gazteei lagundu behar die haien judizio burujaberako, pentsamendu kritikorako eta arrazonamendu etikorako ahalmena garatzen.

15. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bera osatzen dugun politikariok, herritarren ordezkari garen aldetik, tolerantzia eta aniztasuna sustatuko dituzten diskurtso eta moldeak baliatzeko konpromisoa.

16. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du gizarte zientziei, tolerantziarako hezkuntzari, giza eskubideei eta indarkeria ezari buruzko ikerketa programak babesteko. Horretarako, arreta berezia jarri behar da irakasleen prestakuntzaren hobekuntzan, ikasketa planetan, eskuliburu, ikastaro eta bestelako material pedagogikoen edukian eta hezkuntzarako teknologia

berrietan, Nafarroako Gobernuak 2015az geroztik egiten duen moduan, herritar arduratsuak prestatzeko, besteekiko arreta dutenak, beste kulturekiko irekiak, askatasunaren balioa estimatzen dakitenak, gizakien duintasuna eta desberdintasunak errespetatzen dituztenak, eta gatazkak saihestu edo indarkeriarik gabeko bitartekoak erabilia konpontzeko gaitasuna dutenak.

17. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du tolerantzia eta indarkeriarik eza susta-

tzen jarraitzeko hezkuntzaren, zientziaren, kulturaren eta komunikazioaren alorreko programa, jarduketa edo ekimenen babesaren bitartez, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak 2015az geroztik egin duen moduan". (10-19/DEC-00066).

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, einaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitu Rojavan hil edo zaurituekiko, bai eta haien familiekiko ere, beren herrien aurkako bonbardaketa indiskriminatuak pairatu baitituzte.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten du Rojavan hil edo zaurituekiko, bai eta haien familiekiko ere, beren herrien aurkako bonbardaketa indiskriminatuak pairatu baitituzte.

2. Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen du Recep Tayyip Erdoganen erregimenak Siriako iparraldean bultzatutako inbasioa, eta exigitzen du Turkiaren ekintza militar aldebakarra etetea.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio modu argi eta irmoan ager dezan Turkiak Siriako iparraldean burututako inbasioaren eta kurduen garbiketa etnikoaren

ahaleginaren aurkako jarrera Europar Batasunaren baitan eta, halaber, eskatzen die Espainiako Gobernuari, EBri eta NBEari lan egin dezaten eraso hori berehala eteteke.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio erretira ditzan Espainiak Turkian dituen soldaduak eta eten dezan estatu horrekiko arma salmenta egoera konpondu arte.

5. Nafarroako Parlamentuak Turkiako enbaxadari, Kanpo Arazoetarako Ministerioari eta Europar Batasuneko nahiz Nazio Batuen Erakundeko organo eskudunei igorriko die adierazpen hau". (10-19/DEC-00067).

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu Ekuadorko herriak egun hauetan bizi izan duen salbuespen egoera.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. “1. Nafarroako Parlamentuak salatzen du Ekuadorko herriak egun hauetan bizi izan duen salbuespen egoera eta errefusatzeko mugimendu indigenen eta Ekuadorko herritarren aurka oro har egikaritu den errepresioa eta egin diren giza eskubideen urraketak.

2. Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko NMFk Ekuador bezalako herrialdeetan gauzatzen

duen eginkizuna, bultzatzen dituen austeritate neurriek gizarteko sektorerik behartsuenak txirotzen baitituzte.

3. Nafarroako Parlamentuak dei egiten dio nazioarteari parte har dezan gatazkaren behin betiko konponbidearen jarraipenean, indarkeria eta giza eskubideen urraketa egoera amaitze aldera”. (10-19/DEC-00068).

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, etxebizitzarik gabeko familiak babeste aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin egin beharreko lankidetzahitzarmenari buruzkoa.*AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, etxebizitzarik gabeko familiak babeste aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin egin beharreko lankidetzahitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urriaren 3an, osteguna, ezagutu genuen kontseilariak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko buruarekin egindako bilera, lankidetzahitzarmen bat sinatzekoa, sistema bidegabe batek etxebizitzarik gabe uzten dituen familiak babeste aldera.

Zertan da hitzarmen hori eta zein epe darabilzue?

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroako Enpresaburuen Zirkuluak aurkeztutako konklusioei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Enpresaburuen Zirkuluak aurkeztutako konklusioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Ekonomiako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak nola baloratzen ditu Nafarroako Enpresaburuen Zirkuluak aurkeztutako konklusioak?

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, programa-akordioaren helburuak betetzeko behar diren finantzaketa-bermeei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, programa-akordioaren helburuak betetzeko behar diren finantzaketa-bermeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak beherapen fiskalak iragarri eta Calviño ministroak Espainiako desazelerazio ekonomikoaz hedabideetan berriki egindako adierazpenak izan ondoren, Nafarroako Gobernuak nola bermatuko du programa-akordioaren helburuak betetzeko behar den finantzaketa?

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, AEBetan muga-zergak igotzearen eta Erresuma Batuan Brexit gogorra egitearen ondorio ekonomikoak arintzeko neurriei buruzkoa.

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako galdera, AEBetan muga-zergak igotzearen eta Erresuma Batuan Brexit gogorra egitearen ondorio ekonomikoak arintzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garaipen Ekonomikorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako enpresek hilabete honetan bertan bi kolpe latz jasan ditzakete, Estatu Batuetako lehendakariak ezarri nahi duen muga-zergen politikaren eta gobernu britainiarrek Europar Batasunetik berehala ateratzearen inguruan hartuko dituen erabakien ondorioz.

Zer neurri ari da abiarazten Nafarroako Gobernua AEBetan muga-zergak igotzearen eta Erresuma Batuan Brexit gogorra egitearen ondorio ekonomikoak arintzeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentua eskualdeak sortze aldera egiten ari denari buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztutako galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentua eskualdeak sortze aldera egiten ari denari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer ari da egiten zure Departamentua eskualdeak sortze aldera?

Iruñean, 2019ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, jakitekoa ea Inbertsio finantzarioki jasagarrien Planaren baitan finantzatutako inbertsioak zertan diren.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Inbertsio finantzarioki jasagarrien Planaren baitan finantzatutako inbertsioak zertan diren

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan dira inbertsio finantzarioki jasagarrien Planaren baitan finantzatutako inbertsioak eta zein konponbide bilatuko da epez kanpo edo bukatu gabe gelditzen direnentzat?

Iruñean, 2019ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak zer plan duen Nafarroan langile autonomoen kopuruaren jaitsiera leuntzeko.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak zer plan duen Nafarroan langile autonomoen kopuruaren jaitsiera leuntzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer plan du Nafarroako Gobernuak Nafarroan langile autonomoen kopuruan azken hilabetetan izandako jaitsiera leuntzeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, erregio mailako lehiakortasuna galtzeari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, erregio mailako lehiakortasuna galtzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusirik Nafarroa 34 postutan jaitsi dela erregio mailako lehiakortasunean, 131. postutik 165.era erorita, Europako Batzordearen azken txostenaren arabera, honako galdera hau aurkezten dugu, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Nafarroak erregio mailako lehiakortasuna galdu izanari buruz?

Iruñean, 2019ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, Erripagaineko Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeari buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Erripagaineko Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andre-

ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Irailaren 24ko agerraldi batean, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak bere departamentuaren jarduketa ildoetara buruz informatzeko eskutakoan, Erripagañako Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeko beharra aipatu zen.

Zer terminotan proposatzen da aldaketa hori?

Iruñean, 2019ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak finantzatzeko Foru Dekretu berria onesteari buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak finantzatzeko Foru Dekretu berria onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer aurreikuspen du Nafarroako Gobernuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak finantzatzeko Foru Dekretu berria onesteari begira?

Iruñean, 2019ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, AP-15aren doakotasunari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, AP-15aren doakotasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak AP-15aren doakotasuna mantendu nahi du datozen urtetarako, gaur egun erabiltzaileari jasanarazten zaion BEZaren zatia barne?

Iruñean, 2019ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, kultur ohiturei eta praktikei buruzko 2018-2019 Inkestari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztutako galdera, kultur ohiturei eta praktikei buruzko 2018-2019 Inkestari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza eta Kirol Ministerioak argitara eman du berriki Kultur ohiturei eta praktikei buruzko 2018-2019 Inkesta. Bertan Nafarroa agertzen da liburu eta prentsa gehien irakurtzen duten Estatu-

ko erkidegoen artean. Era berean, gure erkidegoa toki nabarmenean agertzen da beste adierazle kultural batzuetan, esate baterako antzerkiera, zinemara edo operara joatean. Baina Nafarroak Espainiako batez bestetik apur bat behera dago, interesaren eta bisitari kopuruaren aldetik, beste parametro garrantzitsu batzuetan, esate baterako monumentu eta museoetan.

Badakigu aurreko legegintzaldian ahalegina egin zela kultur arlo horiei prestigioa eta indarra emateko. Halatan, museoak elkarrekin zabaltzeko kanpaina edo "Museatu eta bidaiatu" programa bezalako ekimenek lagundu zuten Nafarroako museoek 2018an aurreko urtean baino % 50 bisitari gehiago har zezaten. Baina badago oraindik ere, gurez ustez, hobetzeko aukera handia, eta horregatik:

Nafarroako Gobernuari galdetzen diogu ea zer balorazio egiten duen Kultur ohiturei eta praktikei buruzko 2018-2019 Inkestaren datuei buruz eta zer ekintzan aurreikusten dituen nafarren artean museo eta monumentuekiko interesa eta bisitak hobetzeko.

Iruñean, 2019ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

Galdera, jakitekoa ea Erriberako zenbait herritan zergatik ez den helduentzako euskarazko eskolarik eskaintzen.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Erriberako zenbait herritan zergatik ez den helduentzako euskarazko eskolarik eskaintzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Erriberako zenbait herritan salatzen ari dira Hezkuntza Departamentuan erabaki dela, azalpe-

nik eman gabe eta, itxuran, zio edo arrazoi objektiborik gabe, helduentzako euskararik ez eskaintzea, hala aurreikusten baitzen, besteak beste, Tuterako San Juan ETI IIPan . Geroa Baik jakin nahi du zergatik hartu duen erabaki hori Departamentuak.

Iruñean, 2019ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

Galdera, gizarte zerbitzuetan politika publikoetako beste esparru batzuekin integratutako lana bultzatzeko lan-ildoei buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera, gizarte zerbitzuetan politika publikoetako beste esparru batzuekin integratutako lana bultzatzeko lan-ildoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Eskubide Sozialetako Departamentuaren aurkezpenean azaldu ziguten zein izanen diren legegintzaldi honetarako ezarri diren helburuak. Gizarte zerbitzuetan politika publikoetako beste esparru batzuekin integratutako lana bultzatzeari buruzkoa da bigarren helburua: hezkuntza, enplegua, osasuna, etxebizitza, eta abar. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Departamentuak zer lan-ildo darabil gogoan helburu hori betetzeko (bereziki, etxebizitzaren eta enpleguaren arloetan beste esparru batzuekin integratutako lana bultzatzeko)?

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado.

Galdera, Ospitaleko Espetxe-zaintzako Unitate bat irekitzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Ospitaleko Espetxe-zaintzako Unitate bat irekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Irailaren 7an artikulua bat argitaratu zen Redacción Médica aldizkari digitalean. Hona “La sanidad penitenciaria se abre hueco en el hospital de Navarra” titulua zeukan artikulua testua:

“Nafarroako Ospitaleguneak badu, planoan bederen, erreklamaturiko Ospitaleko Espetxe-zaintzako Unitate bat. Hori baieztatu du Gobernuak, espetxe-osasungintza erkidego honetara

hurbiltzean –osasan-arlo horretako eskumena lortzetik gertuen dauden erkidegoetako bat da–. Erakundeak denbora luzea zeraman instalazio hori erreklamatzeko. Izan ere, Siese-Sociedad de Infraestructuras y Equipamientos Penitenciarios y de la Seguridad del Estado estatuko merkataritza-sozietateak 2013an hitz emana zuen. Azkenean, datorren urtean egonen da baliagarri. Une honetan, proiektuaren idazketaren kontratazioa tramitatzen ari da, eta 2020rako planifikatu da obrak egitea.”

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Ea egiazkoa den Ospitaleko Espetxe-zaintzako Unitate bat laster irekitze aldera 2020an obrak egiteari buruz hedabide horrek ematen duen informazioa.

Ea lotuta dauden unitate hori irekitzea eta espetxe-osasungintza Nafarroari eskualdatzea.

Ea zein den unitate horretan osasungintzari emanen litzaiokeen ikuspuntua eta zer jarraipen egingen litzatekeen gero presoentzako osasungintzaren unibertsaltasuna, osotasuna eta kalitatea bermatzeko.

Ea gaixoak artatuko dituzten langileak Osasunbideko langileak izanen liratekeen eta inolako prestakuntza espezializaturik eskatuko litzaielkeen.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Mendigorria-Garesko osasun barrutia berrantolatzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Mendigorria-Garesko osasun barrutia berrantolatzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Aurtengo irailaren 20an proposamen bat egin zen Mendigorria-Garesko osasun barrutia hiru aldagairekin berrantolatzeari begira.

Zein da une honetan egoera? Noiz berrantolatuko da Mendigorria-Garesko osasun barrutia?

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Eslabako Santa Criz aztarnategiak ukitutako finkak desjabetzeko prozedurari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkezturiko galdera, Eslabako Santa Criz aztarnategiak ukitutako finkak desjabetzeko prozedurari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera idatzi hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan:

Zertan da Eslabako udalerriko Santa Criz aztarnategiak ukitutako finketan abiarazitako desjabetzeko prozedura?

Zenbatean ezarri zen lursail horien balio justua?

Gobernuak ba al du asmorik desjabetzeko beste prozedurarik abiatzeko egungo aztarnategiaren ondoko lursailetan?

Iruñean, 2019ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, “Tracasa Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” 1550003 17830 2272 932100 (E) aurrekontu-partidari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, “Tracasa Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” 1550003 17830 2272 932100 (E) aurrekontu-partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera idatzi hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan:

2019rako aurrekontu orokorren eztabaida parlamentarioan 250.000 euro handitu zen, zuzenketaren bidez, “Tracasa Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta

lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” 1550003 17830 2272 932100 (E) partida, zeinaren behin betiko kreditua 822.769 eurokoa baita.

2019ko abuztuaren 1ean, 328.396 euro bete dira guztira. Hori guztia ikusirik, hona galderak:

Aurreikusita al dago ekitaldia itxi aitzin iristea “Tracasa Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” 1550003 17830 2272 932100 (E) partidaren aurrekontu-kreditu osoa betetzera?

Data horretan, zergatik ez da kreditu-zenbateko handiagoa bete?

Ba al daki Departamentuak partida horretako kreditu-handitzeak, 250.000 eurokoak, helburu zuela Tracasa Instrumentalek bost teknikari kontratatzea zerga-iruzurra saihesteko?

Tracasa Instrumentalek 2019an kontratazio hori egin al du? Ezezkoan, zein da kontratazio hori ez egiteko izan den arrazoia?

Ez al du uste Gobernuak bost teknikari horiek ez kontratatzea zerga-iruzurraren aurkako borrokan atzera egitea dela?

Iruñean, 2019ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroako Siemens Gamesaren produkzioaren balizko deslokalizazioari buruzkoa.

GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetu dadin María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Siemens Gamesaren produkzioa-

ren balizko deslokalizazioari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 24ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Hirugarren araua aldatzea, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua- ren 14. eta 35. artikuluen garapenerako arauetakoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak txosten bat aurkeztu du talde parlamentarioek eta parlamentarien elkarteak egindako ekipamendu-eskakizunei buruz.

Talde parlamentarioek eta parlamentarien elkarteak egindako eskakizunak ezagututa, eta kontuan harturik Parlamentuko Erregelamendua-
ren 14. eta 35. artikulua garatzeko arau indardu-
nek ez dutela jasotzen eskaturiko zuzkidura,
Legebiltzarreko Erregelamenduaren 37. artikulua-
rekin bat, honakoa ERABAKITZEN DA:

1. Hirugarren araua aldatzea, 2017ko irailaren 11ko Mahaiaren Erabakiaren bidez onetsitako Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. eta 35. artikuluen garapenerako arauetakoa. Testu hau izanen du aurrerantzean:

“Hirugarrena. Talde parlamentarioek honako baliabide informatiko hauek eduki ahal izanen dituzte:

a) Eledunarendako ordenagailu konbentzional bat.

b) Dagokien laguntzaile bakoitzeko, ordenagailu konbentzional bat.

c) Inprimagailu nagusi bat.

d) Funtzio anitzeko periferiko bat.

e) Mahai gaineko pantailak eta teklatuak bulegoetan erabiliak izateko, beharrianen eta dagoen lekua araberako kopuruan.

f) Telebista-pantaila bat, telebista-zirkuitu i-txiaren bidez bilerak ikusi ahal izateko.

g) Mahaiak taldeentzat baliagarri jotzen duen beste edozein bitarteko tekniko”.

2. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuaren webgune ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias